

## Galdera

Nola idatzi beharko genuke: *Egun on izan?* ala *Egun ona izan?*

## Erantzuna

### ***Egun ona izan***

**a/** Orotariko Euskal Hiztegira joanez gero, [Egun on](#) sarreran ikusten den bezala, *Egun on izan dezala, egun onak izan ditzala* –hots, aditz laguntzailearekin– erabili izan da (eta beste forma batzuk ere bai: *Egun ona desiratzen darotzut, Egun on demala Jainkoak, Egun on dizula Jainkoak...*). Ez da behin ere ageri “Egun on izan” buruzuririk. Gaur egunean, hala ere, “Egun on izan dezazula” bezalakoak formalak egiten zaizkigu. Zer esanik ez Euskaltzaindiaren Hiztegian azaltzen den *Jainkoak egun on dizuela* (zaharkitua ere bai!).

**b/** Interneteko Googlen emaitzak begiratzuz gero, “Egun ona izan” esapidea 73.200 aldiz agertzen da bertan, eta, “Egun on izan” esapidea, aldiz, 7.860, horietako asko zalantzazko kasuak eta beste hainbat aditz laguntzaileak.

Hortaz, **Egun ona izan** erabiltzen dugu gaur egun.